

Asisko gutuna

2016ko Abendua.

2. printzipioa.

Eguneroko bizimodua: barnerantz, umiltasuna

98. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Jainko Jaunak badu zerikusirik gure eguneroko bizierarekin? Jainkoari axola ote gure buruhaustek, gure kezkek? Eta axola bazaizkio... zergatik gabilta beraren aurrean jartzerakoan hori guztia albo batetara utzi behar dugulakoan, “bakea sentitzeko”?

“Zatozte nigana lanpetuok, nahigabetuok, eta nik arinduko zaituztet”.

Gogoetarako gaia

Lanari atsedeen eman

Lan mundua, anbiguetate ugariko esparrua da guretzat. Batetik, nekosoa da eta Bibliaren esaldia egia bihurtzen da: “ogia zeure izerdiz irabaziko duzu”. Lan munduak gure grina ilunak ere azalerazten ditu, elkarrekiko konpetentziak, aitortu ezin diren interesak, lehiak, botere nahiak. Tentsio gunea, inondik ere. Baina norberaren hazkunde esparru ere bada, ardurak hartzeko esparrua, heldutasun esparrua, sorkuntzako, pazientziarena, gauzak ongi egitearena.

Lan munduan, egunez egun, garenaren zati handi bat jokoan jartzen da. Gure onena eman dezakegu, edota gure okerrena atera daiteke. Lanak hazten eta heltzen lagun diezaguke, eta halaber, sortzen digun tentsioak gudan agresibitate edo egiten dugunarekiko gogo-eza eta borondate txarra sor ditzake.

Nola bizi lan mundua tentsioetan lehertu gabe, edo eta ezerk eragiten ez dion funtzionario ilun bihurtu gabe? Nola aurkitu goizero gure lana

gogoz bizitzeko arrazoiak? Horren sekretua lanari atsedeen ematen jakitean datza. Lanari bere tamaina ematen jakitean, absolutu bihurtu gabe. Lanetik kanpo beste esparruak bizitzea. Baina hori bezain ezinbestekoa da inguruan eguneko tentsio eta lorpenak partekatze norbait izatea. Bestela, gure bizkar-zorroa luzaro gabe eragingo diguten tentsioz betetzen goaz.

Eta noski, gure eguneroko lana Jainkoarengan utz dezakegu eta atsedeen eman. Jesusek berak hala esana utzi zigun: “egun bakoitzari aski zaizkio bere buruhaustek”. Izan ere, sarri gure tentsioak biharko eguna kontrolatu nahi izatetik datozkigu, geroak ematen digun ziurtasun gabeziatik. Zeinen garrantzitsua den Jainkoa gure ziurtasunik ezaz, gure egonezinez arduratzen denaren konfiantza izatea, eta horrela guztia bere eskuetan utzi ahal izatea. Ez axolagabetzeko, baizik eta guztia konfiantzaz bizi ahal izateko.

Ebanjelioko pasartea Jn 21,1-7

«Geroxeago, berriro agertu zitzaion Jesus bere ikasleei Tiberiades aintzira-ertzean. Honela gertatu zen agerpena: Elkarrekin zeuden Simon Pedro, Tomas –Bikia zeritzana–, Natanael –Galileako Kanakoa–, Zebedeoren semeak eta beste bi ikasle. Horretan, Simon Pedrok esan zien: “Arrantzura noa”. Besteek erantzun zioten: “Zurekin goaz gu ere”. Irten eta ontziratu egin ziren. Baina gau hartan ez zuten ezer harrapatu. Eguna argitu zuenean, aintzira-ertzean agertu zen Jesus; baina ikasleak ez ziren konturatu Jesus zela. Jesusek esan zien: “Mutilok, baduzue jatekorik?”. Haiek erantzun: “Ez”. Jesusek esan zien: “Bota sarea txaluparen eskuinera eta aurkituko duzue”. Hala egin zuten. Eta hainbeste arrain harrapatu zuten, ez ziren sarea ateratzeko gauza. Orduan, Jesusek maite zuen ikasle hark esan zion Pedrori: “Jauna da”».

Frantziskotar espiritualtasuna

Anaiak, edozein lekutan daudela ere, besterenean zerbitzuan edo lanean ari direlarik, ez bitez izan etxezain, ez eskribau, ez zerbitzatzen duten etxeko buru; eta ez bezate besterentzat eskandalu-bide eta norbere arimarentzat kaltegarri izango den lanbiderik har. Baizik eta txikienak izan bitez eta etxean diren guztien menpeko. Eta lanean dakiten anaiek lan egin bezate eta jardun ezagutzen duten ofizioan, baldin arimaren salbamenaren kontrakoa ez eta oneski egiteko modukoa bada. Profetak baitio: *Zeure lanaren fruituaz biziko zara eta zoriontsu izango, dena ongi zaizu joango*. Eta Aposto-luak: *Lanik egin nahi ez duenak ez dezala jan*; eta baita: *Jarrai beza bakoitzak*, Jainkoak *deitzera-koan zuen* ofizio eta lanbidean... Eta premia dutenean, bihoaz limosna eske gainerako behartsuak bezala. Eta zilegi bekie beren ofizioak eskatzen dituen lanabes eta tresnak edukitzea.

Frantziskok, egunean zehar lanean eta jende artean xume eta anaikorki bizituz ikusten ditu anaiak, haiekin eguneroko lanak eta nekeak partekatuz. Hori da beren bizimodua: ebanjelio santua gauza txiki eta apaletan bizitzea, ustea izanez orduan doala Jaunaren presentzia ernez ezkutuan.

Otoitza

Zeuretzat naiz ni, maitea:
zer nahi duzu egitea?

Hona hemen nire bihotza,
jartzen dizut zeure eskura:
gorputz, arima ta bizitza,
barruak eta joera.
Zuri eskaini bainatzaizu,
Senar ezti eta eroslea,
zer nahi duzu nik egitea?

Heriotza edo bizitza
osasuna edota gaitza;
ohore edota desohore,
eman gerra nahiz bakea,
makal nahiz sendo egotea,
ta esango dut: ala bedi!
zer nahi duzu egitea?

Aberats edo pobre izatea,
eman poz edo nekea,
alaitasun edo tristura,
infernu edo zerua;

bizitza leun, eguzki argia:
denera bainaiz jarria,
zer nahi duzu egitea?

Atsedean dezadan nahi baduzu,
atseden nahi nuke maitez,
lana eskatzen badidazu,
hil nahi nuke lan egitez;
esaidazu non, nola ta noiz,
esaidazu, bai, maitea:
zer nahi duzu egitea?

Nahi baduzu orazioa,
bestela lehortasuna,
emaidazu debozioa,
edo bestela idortasuna.
Oi ene Errege Gorena,
hemen dut soilik bakea;
zer nahi duzu egitea?

Zeuretzat naiz ni, maitea:
zer nahi duzu egitea?

Santa Teresa Jesusena

Gutuneko azken hitzak

“Pazientzia sustrai garratzeko zuhaitza da, baina fruitu gozoduna” Persiar esaera zaharra)

2016ko abenduko eguneroko Ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate abenduko erreferentzia guztiak:

1 Mt 7, 21.24-27	8 Lk 1, 26-38	15 Lk 7, 24-30	22 Lk 1, 46-56	29 Lk 2, 22-35
2 Mt 9, 27-31	9 Mt 11, 16-19	16 Jn 5, 33-36	23 Lk 1, 57-66	30 Mt 2, 13-15.19-
3 Mt 9, 35-10, 1.6-8	10 Mt 17, 10-13	17 Mt 1, 1-17	24 Lk 1, 67-79	23
4 Mt 3, 1-12	11 Mt 11, 2-11	18 Mt 1, 18-24	25 Jn 1, 1-5.9-14	31 Jn 1, 1-18
5 Lk 5,17-26	12 Mt 21, 23-27	19 Lk 1, 5-25	26 Mt 10, 17-22	
6 Mt 18, 12-14	13 Mt 21, 28-32	20 Lk 1, 39-45	27Jn 20, 2-8	
7 Mt 11,28-30	14 Lk 7,19-23	21 Lk 1, 26-38	28 Mt 2,13-18	

Abenduko otoitzaldia 29an izango da.